



EUSKADIKO HAUTESKUNDE
ADMINISTRAZIOA
AUTONOMIA ERKIDEGOKO
HAUTESKUNDE BATZORDEA

ADMINISTRACIÓN ELECTORAL DE
EUSKADI
JUNTA ELECTORAL DE LA
COMUNIDAD AUTÓNOMA

AKTA, AUTONOMIA ERKIDEGOKO HAUTESKUNDE BATZORDEAK 2012KO URRIAREN 1EAN EGINDAKO BILERARI DAGOKIONA

ACTA DE LA REUNIÓN DE LA JUNTA ELECTORAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA CELEBRADA EL DÍA 1 DE OCTUBRE DE 2012

Gasteizen, 2012ko urriaren 1ean, 17:40ean, bilkura hasi du Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak. Juan Luis Ibarra Robles jaunaren lehendakaritzapean, lehendakariorde Luis Javier Murgoitio Estefanía jauna, Florentino Eguaras Mendiri jauna, Juan Carlos Benito-Butrón Ochoa jauna, Antonio García Martínez jauna, Garbiñe Biurrun Mancisidor andrea, Jon Larrinaga Zulueta jauna, Fidel Ignacio Uriarte Pérez jauna eta Aitor Zaldua González jauna bildu dira. Bileran izan dira, halaber, Montserrat Auzmendi del Solar andrea, batzordearen idazkaria; Sonia Fernández López andrea, Administrazioko ordezkaria eta Agustín Peña Irala jauna, Hautesle Erroldaren Bulegoko ordezkaria. Bilerara ez joatea aitzakiatu du Santiago Merino Hernández jaunak.

Bilkurari hasiera emanda, 2012ko irailaren 27an egindako bileraren akta onetsi da.

Ondoren, jasotako idazkiei dagokienez, batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

1a.- Idazkia
Hauteskunde Batzorde Zentralak erabaki du zabal dadila urriaren 18ra arte, hautesle guztientzat, posta bidezko botoa

En Vitoria-Gasteiz, siendo las 17:40 horas del día 1 de octubre de 2012, se reúne la Junta Electoral de la Comunidad Autónoma bajo la presidencia del Excmo. Sr. D. Juan Luis Ibarra Robles y con la asistencia del vicepresidente, Ilmo. Sr. D. Luis Javier Murgoitio Estefanía, del Ilmo. Sr. D. Florentino Eguaras Mendiri, Ilmo. Sr. D. Juan Carlos Benito-Butrón Ochoa, Ilmo. Sr. D. Antonio García Martínez, Ilma. Sra. D.ª Garbiñe Biurrun Mancisidor, D. Jon Larrinaga Zulueta, D. Fidel Ignacio Uriarte Pérez y D. Aitor Zaldua González. Asisten también la secretaria de la Junta, D.ª Montserrat Auzmendi del Solar, la delegada de la Administración, D.ª Sonia Fernández López y el representante de la Oficina del Censo Electoral, D. Agustín Peña Irala. Ha excusado su ausencia el Sr. D. Santiago Merino Hernández

Abierta la sesión, se aprueba el acta de la reunión celebrada el día 27 de septiembre de 2012.

A continuación, en relación con los escritos recibidos, la Junta adopta los siguientes acuerdos:

1a.- Escrito
La Junta Electoral Central acuerda que se amplíe, para todos los electores, el plazo inicialmente previsto para el depósito en



Posta Bulegoetan uzteko xedatutako epea (874)

Nork :Hauteskunde Batzorde Zentrala

Batzordea idazkiaren jakitun geratu da eta agindu du helaraz dakiela lurralde historikoetako hauteskunde batzordeei.

1b.- Erabakia

Jakinarazten du urriaren 18ra arte zabaldu egiten dela, orokortasunez, posta bidez bozkatzen duten hautesle guztientzat botazio-sobrearen uzteko epea Espainia guztiko Posta Bulego guztietan (877)

Nork :Hauteskunde Batzorde Zentrala

Batzordea idazkiaren jakitun geratu da eta agindu du helaraz dakiela lurralde historikoetako hauteskunde batzordeei.

2.- Idazkia

Jakinarazten du ezen Gipuzkoako lurraldean aurkeztutako hautagai-zerrenden lurralde-ordezkariek erabaki egin dutela delegatzea Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeagan Gipuzkoako Lurralde Historikorako bokal ez judizialak izendatzea (875)

Nork :Gipuzkoako LHko Hauteskunde Batzordea

Hauteskunde Batzordeak, idazkia ikusirik eta Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko Legearen 21.1.b) artikulua agindutakoari jarraiki, erabaki du proposatzea Gipuzkoako Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordeko kide ez judizial gisa Edorta Cobreros Mendazona jauna, Euskal Herriko Unibertsitateko Administrazio Zuzenbideko

las Oficinas de Correos del voto por correspondencia, hasta el día 18 de octubre (874)

Origen: Junta Electoral Central

La Junta toma conocimiento del escrito y ordena su traslado a las juntas electorales de los territorios históricos.

1b.- Acuerdo

Comunica que se amplía, con carácter general, para todos los electores que ejerzan el voto por correspondencia, el plazo para el depósito del sobre de votación en las oficinas de Correos de toda España hasta el día 18 de octubre (877)

Origen: Junta Electoral Central

La Junta toma conocimiento del escrito y ordena su traslado a las juntas electorales de los territorios históricos.

2.- Escrito

Comunica que los representantes territoriales de las candidaturas presentadas por el territorio de Gipuzkoa han acordado delegar en la Junta Electoral de la Comunidad Autónoma del País Vasco el nombramiento de vocales no judiciales para el Territorio Histórico de Gipuzkoa (875)

Origen: Junta Electoral del TH de Gipuzkoa

La Junta Electoral, a la vista del escrito y conforme a lo establecido por el artículo 21.1.b) de la Ley de Elecciones al Parlamento Vasco, acuerda proponer como vocales no judiciales para la Junta Electoral del Territorio Histórico de Gipuzkoa a D. Edorta Cobreros Mendazona, catedrático de Derecho Administrativo de la Universidad del País



katedraduna, eta unibertsitate bereko Administrazio eta Konstituzio Zuzenbideko eta Zuzenbidearen Filosofiaren Saileko zuzendaria, eta Domingo Arizmendi jauna, Gipuzkoako Abokatuen Elkargoko dekanoa.

Vasco, y director del Departamento de Derecho Administrativo, Constitucional y Filosofía del Derecho de la misma universidad, y a D. Domingo Arizmendi, decano del Colegio de Abogados de Gipuzkoa.

3.- Idazkia

TVERen idazkia helarazten du "Los Desayunos de TVE" programan egin beharreko elkarrizketen daten aldaketari buruz (876)

Nork :Bizkaiko LHko Hauteskunde Batzordea

Batzordea horren jakitun geratu da eta idazkia Irrati eta Telebistako Batzordeari helarazi dio.

3.- Escrito

Traslada escrito de TVE sobre cambio de fechas en las entrevistas previstas en el programa "Los Desayunos de TVE" (876)

Origen: Junta Electoral del TH de Bizkaia

La Junta toma conocimiento y da traslado del escrito al Comité de Radio y Televisión.

4.- Idazkia

Alegazioak Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak harturiko akordioari zeinak ezesten dituen UPyDk aurkezturiko alegazioak eta berresten hauteskunde-kanpaina hasi aurreko hauteskunde-programazioa: "Entrevistas a candidatos" eta "Euskadi pregunta" (878)
Nork :Unión, Progreso y Democracia (UPyD), ordezkari orokorra

Alegazioak, espedientearekin eta txostenarekin batera, Hauteskunde Batzorde Zentralari bidali zaizkio.

4.- Escrito

Alegaciones al acuerdo adoptado por la Junta Electoral de la Comunidad Autónoma desestimando las alegaciones presentadas por UPyD y confirmando la programación electoral previa al inicio de la campaña electoral, "Entrevistas a candidatos" y "Euskadi pregunta" (878)

Origen: Unión, Progreso y Democracia (UPyD), representante general

Las alegaciones, junto con el expediente y el informe han sido remitidas a la Junta Electoral Central.

5.- Idazkia

Bidali du hauteskunde-propagandako doako tarteen banaketa-proposamena, Irrati eta Telebistako Batzordeak onetsia (879)

Nork :Autonomia Elkarteko Hauteskunde Batzordea, Idazkaria

Batzordeak, Hauteskundeei buruzko

5.- Escrito

Remite propuesta de distribución de espacios gratuitos de propaganda electoral, aprobada por el Comité de Radio y Televisión (879)

Origen: Junta Electoral de la Comunidad Autónoma, Secretaria

La Junta, de conformidad con lo dispuesto



Legearen 84. artikuluari jarraiki, Irrati eta Telebistako Lantaldearen banatze-proposamena onestea erabaki du.

Batzordeak agindu du Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko herri-jabetzapeko hedabideetako doako hauteskunde-tarteen banaketari buruzko erabakia.

en el artículo 84 de la Ley Electoral, aprueba la propuesta de distribución del Comité de Radio y Televisión.

La Junta ordena publicar en el Boletín Oficial del País Vasco el acuerdo de distribución de los espacios electorales gratuitos en los medios de comunicación de titularidad pública.

6.- Idazkia

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan Posta-zerbitzuaren laguntza izateari buruz (880)

Nork :Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra, ordezkari orokorra

Hauteskunde Batzordeko presidentek beharrezko gestioak egin eta gero, erabaki da jakitera ematea Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerraren ordezkari nagusiarri aurreikusia dagoela argitaratzea aipatzen den agindua 2012ko urriaren 5ean.

6.- Escrito

Relativo a la colaboración del servicio de Correos en las elecciones al Parlamento Vasco (880)

Origen: Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra, representante general

Realizadas las oportunas gestiones por el Presidente de la Junta Electoral, se acuerda comunicar al representante general del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra que está prevista la publicación de la orden que se menciona con fecha de 5 de octubre de 2012.

7.- Errekurtsoa

TVEk egindako informazio-proposamenari buruz. (881)

Nork :Euskal Herria Bildu Hauteskunde-koalizioa, ordezkari orokorra

Hauteskunde Batzordeak erabaki du helegitea Televisión Españolaari helaraztea beharrezko alegazioak egin ditzan.

7.- Recurso

En relación con la propuesta informativa de TVE (881)

Origen: Coalición Electoral Euskal Herria Bildu, representante general

La Junta Electoral acuerda dar traslado del recurso a Televisión Española a fin de que formule las oportunas alegaciones.

Gai-zerrendatik landa, Batzordeak erabaki du egitea hurrengo bilera ostegunean, urriak 4, 16:30ean.

Fuera del orden del día la Junta acuerda celebrar la próxima reunión el jueves, día 4 de octubre, a las 16:30.

Beste aztergaririk ez dagoenez, amaiera eman zaio bilkurari 19:30ean.

Sin más asuntos que tratar, y siendo las 19:30 horas, se levanta la sesión.



Vitoria-Gasteiz, 2012ko urriaren 1a

Vitoria-Gasteiz, 1 de octubre de 2012

IDAZKARIA / LA SECRETARIA

Montserrat Auzmendi del Solar

O.E. / V.º B.º
LEHENDAKARIA / EL PRESIDENTE,

Juan Luis Ibarra Robles